

# **LAGUNTZA DEIALDIA 2017/18 IKASTURTEAN ZEHAR HIZKUNTZAREKIN HARREMANA DUEN ELKARTRUKE EDO ESKOLA JARDUERAREN BATEAN PARTE HARTU DUTEN ARANGUREN IBARREKO IKASLEENTZAT**

## **OINARRIAK**

### **1. Artikulua. Deialdiaren xedea.**

Deialdi honen xedea Batxilergoko 1. mailara arteko, edo baliokidea den maila batera arteko, ikasleei 2017/18 ikasturtean zehar elkartrukeak egiteko garraio eta jardueretako (museo eta monumentuen bisitak...) laguntzak esleitzea da.

### **2. Artikulua. Parte hartzaileak eta baldintzak.**

Aranguren Ibarreko ikasleak diren, hezkuntza Nafarroako ikastetxeetan jasotzen duten eta ondorengo baldintzak betetzen dituzten ikasleen laguntzak bideratuko dira:

- a) Ikasleek Aranguren Ibarrean erroldaturik egon beharko dute.
- b) Nafarroako Gobernuaren menpekoak diren ikastetxeetako ikasleak izan beharko dute.
- c) Eskaera xede izango den jarduerak ikastetxeko urteko programazioan txertaturik egon beharko du eta ikastetxeko Eskola Kontseiluak onarturik.
- d) Elkartrukea eskola-egutegian egin beharko da, hezkuntza edukia izan eta parte hartzen duen ikastetxearen helburu eta prozedurekin bat egin.
- e) Gehienez elkartruke bat diruz-lagunduko da ikasle eta urteko.
- f) Laguntza hauek eskatu ahaliko dituzte, gehienez 15 eguneko egonaldiak egiten dituzten ikasleak.

### **3. Artikulua. Eskaerak aurkezteko modua eta epea.**

2.1. Eskaera elkartrukean ibili den ikasleak egin beharko du eta Aranguren Ibarreko Udaleko Erregistro Orokorrean, Mutiloa plaza z/g 31192 – Mutiloa.

2.2. Eskaerak aurkezteko epea 2018ko irailaren 7an bukatuko da, ostirala, 14:00etan.

### **4. Artikulua. Dokumentazioa.**

Interesa duten ikasleek eskaera aurkeztu beharko dute eta horrekin batera ondorengo dokumentazioa:

- a) Ikastetxeko Ziurtagiria, I eranskinaren arabera.

- b) Aurreikusitako gastuen aurrekontua edo gastuen justifikazioa.
- c) Errenta Aitorpena edo Familia Unitatearen sarrerren justifikazioa.

#### **5. Artikulua. Instrukzio-organoa eta ebazpena.**

Deialdi honen instrukzio-organoa Aranguren Ibarreko Udaleko Hezkuntza, Kultura eta Euskara Batzordea izango da, aurkeztutako eskaeren baldintzen betetze maila baieztatuko duena.

#### **6. Artikulua. Finantziazioa: modalitatea eta diru-laguntzaren zenbatekoa.**

Finantzaketaren zenbatekoa aldagarria izango da ikasle eskatzailearen Familia-unitatearen Errenta aitorpenaren arabera. Ondorengoak dira kontuan hartu beharreko errenta-tarteak:

- Per capita diru-sarrerak IPREM-eraino.....gastuaren % 100
- P.C. diru-sarrerak IPREMetik IPREM+% 30era..... gastuaren % 75
- P.C. diru-sarrerak IPREM+% 30 baino handiagoak.....gastuaren % 50

Eskaerek diru-laguntzarako esleitutako diru-partida gaindituko balute, kopurua proportzionalki banatuko da eskatzaileen artean. Bestalde, diru-laguntza ez da inoiz ere ikasleko 300 €-koa baino handiagoa izango.

#### **7. Artikulua. Bateriaezintasunak.**

Beste entitate edo erakunde batetik beste laguntza ekonomikoren bat jasotzen duten ikasleek, zenbateko laguntza eta zein erakundetik jaso duten jakinarazi beharko dute.

Beste erakundeek emandako diru-laguntza deialdi honetan ezarritako zenbatekoa baino txikiagoa balitz, laguntza hori gehieneko diru-laguntza kopurura arte osatuko da.

#### **8. Artikulua. Ebazpenak**

Deialdi honen aurka, baita oinarri hauen aurka eta horietatik eratorritako administrazio egintzen aurka ere, gora jotzeko errekurtoa jarri ahalko da Aranguren Ibarreko Udalari zuzendua, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, hilabeteko epean.

## I ERANSKINA

### IKASTETXEAREN ZIURTAGIRIA

Bertan agertu beharko dira:

- Ikaslearen izena
- Maila/ ikasturtea
- Elkartruke programa
- Elkartrukearen datak
- Elkartruketik eratorritako gastuen kopurua (bisitak, garraioak...).
- Jatorriko ikastetxearen datuak (izena, helbidea, telefonoa eta ikastetxearen arduradunaren izen-abizenak).
- Elkartrukearen ikastetxearen datuak (izena, helbidea, telefonoa eta ikastetxearen arduradunaren izen-abizenak).
- Bestelako oharrak

Mutiloan, 201....(e)ko .....-ren ..... (e)an

IKASTETXEKO ZUZENDARIA ETA ESKOLA KONTSEILUAREN LEHENDAKARIA

Sinadura - Zigilua